

## **MANIFESTUA**

### **BIDEZKO MERKATARITZAREN MUNDU EGUNA, 2015ek maiatzak 9**

#### ***"Haritik egin tira"***

Gaur, maiatzeko bigarren larunbat guztietan bezala, xxxxxx-ko hiritarrok Bidezko Merkataritzaren Mundu Eguna ospatuko dugu.

Egun hau aprobetxatu nahi dugu haritik tira egin eta janzten dugun arropa gehiengoaren atzean dagoena agerian uzteko eta aurkitzen dugun gauza bakarra bidegabekeriak eta Giza Eskubideen urratzea dira. European soilik, egunero 34.000 milioi euro mugitzen dituen sektore honetan oso garbi ikusten dira globalizazioaren eta guztiz bidegabekia den eredu ekonomiko honen ondorioak, non langileen eskubideak, gutxi batzuen onura ekonomikoaren mendean jartzen diren.

Sektore honetan:

- Multinazionalak negozioaren irabazi handienekin gelditzen dira, langileak berriz, laketako langileak batez ere, 12 edo 14 ordutako lanaldi akigarriak egiten dituzte baldintza oso latzetan.
- Emakumeak dira langileen %80a eta batez beste, lan berdina egiten duten gizonek baino %20 eta %50 gutxiago kobratzen dute.
- Sindikatuak jazarpenak jasaten dituzten herrialdeak etengabe deslokalizatzen dira, taldeko negoziazioak ez daude bermatuta eta langileek ezin dituzte beren eskubide funtsezkoenak zaindu eta defendatu.
- Azpi-kontratazioak pobrezia feminizazioa, lan esplotazioa eta erantzukizunak multinazionalak hornitzen dituzten enpresengan uztea esan nahi du.

Gaur, Bidezko Merkataritzaren Mundu Egunean, esplotazio, pobrezia eta baztertze egoerak gehien jasaten dituzten erkidegoak eta pertsonak gogoratu nahi ditugu, baita egoera hauek sortzen dituzten zergatiak ere.

Eta axola zaizkigulako, Bidezko Merkataritzaren mugimendutik argi eta garbi esan nahi dugu haritik tira egiten jarraituko dugula, bidegabekeria hauek salatzen jarraitzeko eta mundu justuago, hobe

**Ez dugu bidegabekeriaren konplize izaterik nahi! Mugitu! Haritik egin tira!**